


bidegileak




Bitoriano Gandiaga (1928-2001)

Egilea:

RUFINO IRAOLA

Atarikoa

W dazkeneko giro epelean, 1957ko irailaren 13an, joan nintzen Arantzazura, eta denbora asko baino lehen ezagutu nuen Bitoriano Gandiaga. Dena oso arraro iruditzen zitzaidan ingurune hartan, fraide arraroago bat ezagutzeko ditxa izan nuen: orduko legez esanda, Aita Bitoriano Gandiaga. Irakasle zebilen, fraidegaiak hezten, gero hainbeste urrituko zen kasta hori ugaria baitzen Gandiagaren gazte denboran, Arantzazun eta beste toki askotan. Nik dakidala, bi asignatura ematen zituen: geografia eta euskara. Geografiako klasea niri ez zitzaidan Gandiagarekin tokatu, Aita Arrietarekin baizik. Go-goan dut, udaberrian, Joanes artzainak



Bitoriano Gandiaga (1928-2001)

hainbeste aldiz hostoberritzen ikusitako pagoen itzalean ematen zigula eskola, Arantzazun bertakoak adibidetzat harturik, landareen bizitza, ibaien joan-etorriak eta haitzen osaera esplikatu. Izan ere, Aita Arrieta espezialista handia zen geografian. Ikaskideen artean ere bagenuen bat aparta: Guzman Aranaga; hark beti 10 ateratzen zuen. Gandiaga ez zen geografian espezialista, eta hark gelan bertan irakasten zion beste taldea-



Bitoriano Gandiagaren jaiotxea, *Orbelaun* baserria, Mari Teresa arreba oiloei jana ematen



Gandiaga familia: atzean, eskuinetik hasita: Bitoriano bera, Maria, Felix eta Joxe; aurrean, eskuinetik, Maria Teresa, aita (Jose), Juanita, ama (Anastasia) eta Elena

ri. Gainera, bokazioz baino areago, goikoen aginduz irakasten zuen geografia.

Baina Gandiagak bazuen bokazioa eta bazuen bere-berea zuen gaia: euskara. Horretan inork gutxik eramango zion. Aita Villasantek eta biek elkarlanean sortutako aditz-paradigmak eramaten zizkigun klasera; haiekin eta orain gogoa ez ditudan beste material eta irakurgai batzuekin irakasten zigun. Gogoz eta gustura ari zela antzematen zitzaion; sentimendua eta berotasuna ipintzen zion azalpen bakoitzari, eta gu ere kutsatu egin gintuen berotasun horretan. Neurri handian, euskal idazle gisa naizen apurra Gandiagari zor diot.

Lehen *arraroa* aipatu dut; agian, bitxia esan beharko nuen. Bai, Bitoriano Gandiagaren zenbait portaera eta jokabide bitxiak ziren. Adibidez, nekez ikusiko zenuen paseatzen. Hori denbora galtzea jotzen ote zuen? Horren orde, haren ariketa fisikoa zen baratzetan lan egitea. Arantzazuko ikastetxe zaharrak bazuen aldamenean gorritutako lur-sailtxo bat; hantxe aritzen zen lanean: porruak jorratu, azak aldatu, berakatzak erein...

Bakarti samarra zela diotenek arrazoi dutela uste dut. Ez zen inoiz joaten irakasle-ikasleok egiten genituen mendi-irteera eta ibilaldieta-rra ere. Baina idazlea zen, eta horrelakoetan aprobetxatu beharko zuen denbora, bere ideia sakonak papereratzeko.

Gandiaga fraidea zen, fraide tradizionala, eta ortodoxoa; behin harturiko bideari tinko

etsi ziona, eta estu samarra ere bai. Pasadizo honek gauzak apur bat argituko dituela uste dut. Behin batean klasean, Zarauzko Hilario Epeldek txiste bat kontatu zuen. Ez dut uste berdera iristen zenik, marroi samarra ote zen nago. Gandiagari ez zitzaion gustatu. Kargu hartu zion. Asaldatau gabe, ordea, oso modu pedagogikoan, eta gozo hitz eginez: «Egunero komunioa hartzen duen gure mingainetik jalkitzeko, zatartxoa iruditu zait». Ez zion besterik esan.

Fraide ortodoxoa, baina maisu modernoa zen Gandiaga. Botoi batek balio omen lezake mostratarako, eta hauxe da nirea: ez nuen inoiz barrundatu ikaslerik jotzen. Hori nik bezala esango dute gehiagok ere. Aipatzen badut, kontraste gisa aipatzen dut, bai baitziren kaskarreko, masaileko eta bestelakoak erraz, errazegi, banatzen zituzten maisuak.

Gandiaga, bestalde, apaiza zen. Apaizgintzarekin loturiko bi pasadizo kontatzen zizkigun, injenuitate-kutsu eta ironiazko nahasketaren bidez sortutako umoreaz. Hauxe zen bata: gure Gandiagak ez zekien «armonia» hitzak, erdaratik kalkatutakoaz gain, beste esa-

nahirik zuenik. Ondorioz, aitortzera joan eta «andrearekin etxean armonian aritu naiz» esaten ziotenean, hala erantzuten zien: «Hori, hori; etxean armonia behar da». Eta Goierriko euskaldun peto haiek zer pentsatuko ote zuten aitorleari buruz? Noizbait jakin zuen, ordea, errieta, sesioa, demanda... ere esan nahi zuela *armoniak*.

Bigarrenak ere badu mamia. Sarritan aitortzen zuen lotsa ematen ziola igandeko sermoia prestatu behar zuela baserritar bati esatea, «eta abokatu bati inolako lotsarik gabe aitortzen diot» eransten zuen.



Bitoriano, aita Joseren sorbaldan eskua ipinita, Joxe eta Maria anai-arrebekin, eta ama Anastasiarekin



Gandiaga Arantzazuko ikaskideekin

Datu biografiko batzuk

Gure biografiatua, Bitoriano Gandiaga Artetxe, Jose eta Anastasiaren lehen semea, Bizkaiko Mendatan jaio zen, 1928an, *Orbelaun* baserrian. Zazpi neba-arrebatatik zaharrena izanik, baserriko maiorazkotza bazegokion ere, horri uko egin eta Arantzazuko seminarioan sartu zen 1940an, 12 urte zituela, gerra amaitu berri-berria zela. Hori bai, bere baserri eta senideekin harreman estuak izan zituen bizitza osoan. Joxe, Mari, Peli, Elena, Teresa eta Juanita ziren Bitorianoaren sei neba-arrebak.



Mendatako herriaren ikusmira panoramikoa

Bada hemen zerbait, gero Gandiagaren poesia hobeto ulertzeko, isilik uztea komeni ez dena:

Apaiz karrerari benetan ekin aurretik, beste hainbatek egin ohi zuen bezala, erdaraz apur bat ikasi arte, urtebeteko «curso preparatorio»a egin zuen lehenik. Ondoren, hiru urte gehiago egin zituen Arantzazuko ikastetxean. Gero, handik Bizkaiko Forua herrira joan zen. Han bi urte gehiago egin eta Zarautza, nobiziadua egitera. Zarautz utzi eta Nafarroako Olitera joan zen, filosofia ikastera. Han hiru urte egin eta berriro ere Arantzazura, teologia ikastera. 26 bete aurretxoan apaiztu zen.

Pertsona bitxitzat jo dut nik, lehen, Bitoriano Gandiaga. Ez daukat garbi adierazterik zerga-



Orbelaun baserria bera, Gandiagaren jaiotxea Mendatan

tik iruditzen zitzaidan besteetatik diferentea Mendatako poeta. Agian, bere barne gogoa zen horren arrazoia. Poeta handi baten irakinean bizi zen, artean inor ohartu ez arren. 34 urtera arte jarraitu zuen barrena egosten eta

orduan argitaratu zuen lehen liburua, *Elorri* famatua. Dena den, Gandiagak aurretik ere utzi zituen aztarna aipagarriak: *Arantzazu*, *Egan*, *Euzko-Gogoa* eta *Olerti* aldizkarietan publikatu zituen lehenengo poemak.



Orbelaun baserriko su baja

Elorri: Arantzazu kantagai

Begian jaio zan.
Nire eskuak ez eutsan
ikutu sekulan.
Iruntz-tanto bat zan
okaran baltzean.
Begian jaio zan.

Elorri eta Arantzazu elkartzen baditugu, ikusita baino argiago dago esanahi handiko habea osatzen dutela. *Elorrik* Arantzazuko misterioa du kantagai, eta horretan dihardu. 1962an plazaratu zuen, eta ez dakit zenbait kritiko zergatik harritu zen hainbeste «Gandia-garena poema erlijiosoa da» esanez. Ez al zuten, bada, irakurri liburuaren azale-



Bitoriano Gandiaga mendian, zakurra eta bi adiskide gazterekin

an bertan: *Arantzazu-ko prailea?* Nahiko zuten Gandiagak, garai hartan usadioa zen eran, poesia soziala eta politikoa egitea. Ez, bada! Erlijiosoa egin zuen. Eta nor gara gu jenero jakin bat, adibidez poesia erlijiosoa, gaindituta dagoela edo modatik pasatuta dagoela esateko? Hori sarriegitan gertatu zaigu Euskal Herrian; alegia, obraren garrantzia bere barrenetik jaio beharrean, kontestuak erabaki. Lan estetiko eta poetikoa politikaren

menpe ezarri nahi! Dena den, *Elorri*, poema erlijiosoaz, izadiari buruzko poema lirikoa ere bada. Garai hartako existentzialismoan giro-tua dago. *Elorriri* buruzko sarrera honetan, azkenik, esan dezagun liburu horrek *Jose Antonio Agirre* saria irabazi zuela.

Elorriko poema batzuk hona ekarri eta komentarioren bat egin aurretik, Aita Villasanteri ostuko dizkiogu ideia batzuk, liburuari egindako hitzaurretik, gero guk hemen geure erara txertatzeko:

Egileak elorria hartu du giza bizitzaren iruditzat, giza bizitza ere, elorriaren gisara, txalkor, zarpail eta arantzez josia baita, mina eta samina alde guztietatik dariola; hala ere, inoiz badaki lore txuriak ematen, elorriak bezala.

Bitorianok hor barrenean daraman Arantzazu kantatzen du, baina hori baino gehiago ere kantatzen du: giza bizitzaren auzia, edo egilearen beraren barreneko drama. Baina dramaren aurrean, zutik jartzen da, eta apaiza, fraidea eta San Frantziskoren jarraitzailea dela gogoratuz, fedea hartzen du eutsagatzat dramari aurre egiteko. Sinesmena da, hain zuzen, poema-bildumaren muina eta mamia. Jakina, egileak Arantzazun bizi izan du bere esperientzia, eta Arantzatutik ari da kantuan, Asisko Frantziskoren espirituarekin kutsatuta. Asisko hark bezalaxe, izadia du maite, eta Gandiagak gutxik bezala jakin du inguruak eskaintzen dion edertasunaz jabetzen, eta hori poema bihurtzen.



Bitoriano Gandiaga Arantzazuko komentuaeren atarian, Aita Villasante eta Jose Luis Lizundia euskaltzainarekin



Elorri liburuaren azala

Baina Gandiagak ez du ingurua bakarrik poema bihurtzen, baita bere bizikizunak ere: meza laguntzen aritzen zenekoak, apaizgintza, meza berria...

Goroldioa harriari bezala, apurka eta pixkanaka erantsi eta lortutako karisma du Arantzazuk, Ama Birjinaren presentziarekin. «Amaren aurrean beti izan gara haur», eta amarentzat beti izan gara ume. Apaltasun horrekin abestuko du Mendatako mutilak, Arantzazuko fraideak. «Zergatik jaitsi zinen elorrira?» dio. Eta galderak poema bihurtzen ditu.

Arimako kontuak, arimako giroa, arimako paisajeak kontatzen eta adierazten ditu *Elorrik*. Angelusaren garaia. Pio Barojak prosan eta Gandiagak hitz neurtuetan azaldu digute. Pentsamendu hau dabil fraide poetaren baitan: Arima ez da asetzen munduko gauzekin. «Baina bada gezurrezko tristura bat ere. Eguzkirik ez balitz, tira, baina badago, eta, hala ere, beti negarti.»

Heriotza ere kantagai du Bitorianok. Udazkena da Arantzazun, eta udazkenak negua dakar: heriotza. «Nire ere hilko naiz» dio. Hil da. Hala ere bizirik dirau, poema hilezkorrak utzi dizkigulako. «Nik bilatzen dudana lore eta izarren gagnetik dago: egunen batean aurkituko dudalakoan nago.»

Esan dugu: udazkenean tristura, elorriari loreak eta fruituak joan zaizkio, hosto iharren apaindura baino ez zaio ageri. Ardiak behera

datoz, masustak heldu dira, intxaurrak erori. Udazkena.

Elorri osatzean, umetako desio bat bete zuen Bitoriano Gandiagak, umetan hasi baitzen poemagintzan, baina erdaraz egiten zituen. Arantzazuri buruzko poema egiteko asmoa ordukoxea du. Bestetik, ez da pentsatu behar berehalakoan osatu zuenik. Dozena bat urte eman zituen (segidan ez baina) horretan.

Badakigu Gandiagak irakurri ere erruz egin zuela. Beste batzuen artean, honako autore edo liburu hauek aipatzen ditu: Don Quijote de la Mancha, Biblia (batez ere salmoak), Horazio, San Juan de la Cruz, Fray Luis de León, Antonio Machado, Dámaso Alonso, Juan Ramon Jiménez, Rabindranat Tagore...

Horiek erdarazkoak, jakina. Euskaraz ere irakurri zuen, noski. Hona bakar batzuk: Jauregi, Gabriel Manterola, Lauaxeta, Salvatore Mixelena, Arrese, Orixe, Lizardi...

Kontu egin *Elorri* atera zen garaiari buruz ari garela. Harrezkero zenbat irakurri ote zuen. Zerrenda luzeegia litzateke hemen ipintzeko. Gainera, irakurtzeaz beste, pentsatzen zekiena zen Bitoriano. Horrek bakardadearen bila eraman ohi zuen: mendiko ibilaldiak bakarrik egitea gustatzen zitzaion.

Erabili zuen euskaraz zer esan behar dugu? Guztiz aberatsa, egokia eta zuzena zela. Hori bai, bizkaieraz idatzia dago *Elorri*, baina bizkaiera ulerker eta dotorean.




Aita Villasante eta Bitoriano Gandiaga, Arantzazuko zabalunean, «Peña de Bildotsa» atzean dutela

Gure kontakizuna apaintzeko, ezarri ditzagun
Elorri-hosto batzuk:

Ementxe dago arkaitza.
Ume nintzenean,
soin gabeko poema bat
usmatu neban, eziña,
arkaitz zurt onen ganean.

NEURE itzaren billa
—ez gauzetan,
ez jakintza—,
neure itzaren billa
nabil [...] ametsetan.



Bitoriano Gandiaga bere *Elorri* liburuarekin



Hiru gizon bakarka

*H*ronologiari jarraiki, *Hiru gizon bakarka* da Gandiagaren hurrengo lana. Baina esan dezagun tarte handia izan zela bi liburuon artekoa, 12 urte igaro ziren. Bada zerbait! Izan ere, «Nik ez dut orain idazten paper-saskirako baizen» esaten digu. Oteizaren eztenak gogor zirikatzen du, ordea, eta saskitik pape-rak biltzeko, edo berriz ez botatzeko, erabakia hartzen du:

- Zer paper-saski ta sasko?
Euskalerra ez al dago
paper-saski, hutsik asko?
Entzun nuen ta pentsatu.
Herriak nindun ikutu.
Herriak eta egiak
guztiok behar bait gaitu.

Tailer batean nengoen,
Oteitza baten ondoan.
Hitzak apalki entzun nizkion
ta asmo bat hartu beroan:

- Agintzen dizut, egia,
idazten dudan guztia
tailer hontara jasoko dizut.
Gaurtik hemen dut saskia.
Oteizaren eskaritik
herriarenak entzunik
iratzarri naiz jadanik lotan
nengoen paper-saskitik.
- Banatorkizu, Oteitza.
Bete nahi dizut nik hitza.
Idatzi ditudan hauek
inon utzi ahal banitza.

Beraz, 12 urteko mutualdiaren ostean, horre-la mintzo zaigu poeta. Baina mutualdi hutsa izan al zen Gandiagarena? Nik uste haren

barne-lapikoa irakinean aritu zela urte horietan guztietan, ezarian-ezarian. Askok diote krisi sakonean murgildu zela. Hala ote? Ala nik esaten dudan irakin horren pean jardun zuen hurrengo poema-liburua, *Hiru gizon bakarka*, egosten? «Gandiagarengan somatzen diren etsipena eta oinazea» aipatzen du zenbaitek. Etsipenak eta oinazeak isildu egiten du jendea; mututu, hizlaria... Baina Gandiagak inoiz baino bortitzago hitz egiten du. Egia da «nahi eta ezina» dituela kantagai, ardo izatera iristen ez den txakolina hartu du sinbolotzat. Hala ere, eupada baten antz handiagoa

hartzen diet haren hitzei. «Eutsi goiari» da mezua, eta horretan dihardu poetak berak ere. Bere burua eskaini nahi du bigarren idi pare gisa, puntakotzat, lohitan dagoen gurdia ateratzeko. Ez da etsipena, lanerako eta ekinerako deia baizik. Nire iritziz, argi-xinta dakusala Gandiagak, argi-xinta hori eguzki bihurtu nahian ekiten diola lanari.

Beste zenbaitek, bere garaian, Gandiagaren beraren aurreko estiloarekiko eta pentsamoldearekiko haustura eta etentzat jo zuen liburu berria. Nik uste dut ez dela hainbeste-



Javier Sáenz de Oiza arkitektoa eta Bitoriano Gandiaga

ko etenik nabari. *Elorri*ko ideial berberak gidatu zuten gure poeta azken egunetaraino. Gandiagak eboluzionatu egin zuen, poeta on guztiek egiten duten bezala. Horri ez dago iraganarekiko etena deitzerik.

Oteizari egin omen zion promesa, ala bere buruari? Oteiza ezten izatea litekeena da, baina zer zekien garai hartan Orioko eskultoreak ia-ia aditzerarik ez zuen fraide hartaz? Irakurria ote zuen *Elorri*? Hala ere, paralelismo bat badago (hurrengo hitzak Mikel Lasarenak dira): «Oteiza harriak irudi bihurtzen ari zen bitartean, paraleloki, Gandiagak irudiak hitz bihurtzen zituen.» Eta, Mikelen beraren galderari erantzunez, esango nuke horrelako fenomenoak sarritan eman izan direla, hau da, lanabes diferenteak dituzten artistak objeto bera landu dutenak. Literatura eta eskultura edo pintura maiz ibili dira elkarrekin eskutik, gertakizun handi bat betiko

itsatsirik utzi eta hilezko bihurtzearen. Omenaldi handiak, beti, harriz eta letraz egin izan dira.

Gorago esan dut argi-xinta ikusten duela, nahiz eta momentuko egoerak estutzen duen, egoera mingarria eta latza baita, eta aldatu egin nahi du. Haren hitzen trajikotasuna, dramatikotasuna bortitza da, baina ez dauka eskuak tolesturik geratzeko konturik, baizik eta:

Ibarrera,
ibarrera!
Ujolak sortu dira
ta uherka ez da gauza
hainbat urentzako!

Ibarrera,
ibarrera!
Guztiok behar dugu
ibarrera jetxi
urak bideratzera.



Hiru gizon bakarka
liburuaren azala



Bitoriano Gandiaga eta Juan Mari Lekuona, hitzaldi baten ostean

Uda batez Madrilen

Oraingoan, Juan Mari Lekuona adiskidearen hitzaz eta iruzkinaz baliatuko naiz *Uda batez Madrilen* liburuaren gainean zerbait esan eta *Bidegileak* sailean txertatzeko. Errealitateari buruzko testigantza eman nahi du Gandiagak, eta hori nola eman da bere kezka. Hiri handi bateko zertzeladak biltzen ditu Gandiagak, collage bat egin. Ikusten duen gutzia deskribatzen du: gruak, jende-masa, emakume anonimoa, espaloiak, metroa, elizak eta dorreak... Hiriko konplexutasun korapilatsua du kantagai. «Espresionismo soziala» deitzen dio Juan Mari Lekuonak. Deshumanizatzearen aurka-ko garrasia da: autopisten aurka, eraikuntza erraldoien aurka ari da. Gizakia hutsaren hurrengo ikusten du, gizaki horrek berak sortu duen kaosaren erdian.



Uda batez Madrilen liburuaren azala

Denen aurrean dauden gauzak ikusten ditu hark, eta horietaz jabeazten gaitu besteok. Begi-bistan dauzkagu naturak eta gizakiak sortutako elementuak, eta Gandiagak ikusmolde berezia du horiei buruz, guk ez bezalako, poeta batena. Eta gauza arrunt horiek gure sentzibilitatean itsasten ditu hitzaren bidez, eta poesia dira.

Bertso librean moldatu du mezua. Beti bezala, kantatzeko eginak dira, musikaltasunez jantziz; espazioak garrantzi handia du. Fisikoki



Bitoriano, adiskide batekin, San Adriango koban

ere forma eman die poemei. Badu trikitiaren moldean osaturikorik ere. Eta hona hitzez hitz aldatuko dugu Juan Mari Lekuonaren hitzaurretik honako paragrafo hau:

Trikiti hots horrek poz bat sorrarazten die poemei, egileak ohartuki hautaturiko azpi poza. Izan ere, behinola, «¡Qué tristes son los cantos vascos!», esan omen zien fraide-
ren batek kantari ari ziren ikasle frantzisko-
tarrei. Eta Gandiagak hitzetik hortzera

erantzun: «Pero son verdaderos.» Asko estimatzen du Bitorianok alaitasunaren alderdia, eta ez gutxiago egiatasunarena, batik bat kantuen eta poemen hotsa tarteko direnean.

Hau da pandero berria
udalditan eresia,
hau da pandero berria
Madriletik oroigarri
adiskideei ekarria [...]

Denbora galdu alde

Horixe da Gandiagaren laugarren liburua. Kasu honetan, *porrusalda* egingo dut. 1990ean, liburu horren aipua egin nuen *RIEV* (Revista Internacional de los Estudios Vascos) aldizkariako. Orain, huraxe moldatuko dut. Kronologikoki laugarren liburua zen. Hori gogoratu ostean, honela nioen nik orduan: «Aurreko hiruretan lauso artean bezala ageri diren bere nortasunaren arrastoak, azkenean, erabat nabarmen jartzen ditu». Bere buruari eta bere arazoei eskainiriko liburua da *Denbora galdu alde*. Beste izenburu bat ipin ziezaiokeen, «Psikoterapia egite alde», adibidez. Bere buruaz ditu zalantzak, oraingoan, gizonak.

Psikiatreek, lanean bestetan ez dakien gizonari, esan diote lan gutxiago egiteko eta bere buruari halako perfekzioz ez eskatzeko.

Baina moral estuegian hezia omen. Nola ohitu denbora galtzen? Eta garrasi dagi Gandiagak.


Gandiagak airean egiten du salto prosatik poesiara eta hortik bertsora, gertatzen zaiona kontatzeko. Gogoak halaxe ematen diolako idazten duela euskaraz esanez hasten da lehenengo poema saila. Nahi lukeen leku guztietara ezin omen da iritsi, eta horrek sortzen dio egonezina. Ez omen da lagunartekoa. Dударik gabe, bakardadearen emaitza da aipatzen ari garen liburua.

Gauza berei jiraka ari da. Jaramonik egin nahi ez liekeen kontuak beti buruan. Bere buruarekin bakar-solasean ari da. Beretzat idazten du. Gogor bezain egiati jokutzen du bere buruarekin.

Apaizgintzak ere, saltzeko ez daukan arren, eman dizkio buruhauste franko: konfesioak,



Bitoriano Gandiaga bi andererekin elkarrizketan



Denbora galdu alde liburuaren azala

sermoiak... Ohartzen da kokolokeria gehiegi darabilena buruan, gainditu nahi ditu; nola, ordea? «Hamar urterekin Sabina gustatzen zitzaion». Baina fraide joatea erabaki zuen.

Harritu egiten da edozein arazo latzek eraso arren lo lasai hartzen duen jendea badagoela ohartzean. «Ni ez nauzu horrelako dohainen jabe» esango du.

Gandiagak Bitorianori izeneko sailarekin ekiten dio bertsoetan; zortziko handian ari da:

Jardun gaitezen, Bitoriano,
zeure bentura fatalez,
iluna zara pentsamoldean,
bizkaitar beltza azalez,
gurarietan turrust bizia,



Bitoriano Gandiaga, bere poemak erreztatzen

neurri-gabea joranez;
alferrik errez dagoan zura
dirudidazu tamalez.

Zortziko zaharrean ere saiatu da. *Hegotik Iparrera* saila doinu horretan emana dago. Huskeriak benetan hartzen dituelako, bere buruari errietan ari da. Momentu batean egiten du ihes gauza pertsonaletatik zabalagoe-tara, *NIK* izeneko sailean, adidibez; baina orduan euskararen ezinarekin hasten zaigu. *Orain* deritzan atalean, esaldi borobil eta sarkorrak darabiltza: «Alferra izan naizen kezkarik ez dut, baina bai alferrik aritu izan naizen, damurik.» Hurrengo hau a ze irudia. *Nahiz eta* izeneko sailean dator:

Baina pospuluak behingo argia damake
bakarrik eta onenean.

Gero ikatz eta ezertarako ez den zotz dateke,
besterik ez.



Remigio Mendiburu, Bitoriano Gandiaga eta Juan Mari Lekuona



Bitoriano Gandiaga poeta, pentsakizunean

Edozein gauza du oztopo, hala dio: «erderaz aritu naiz irakurtzen eta itxaron iezadazue pixka bat buru hau euskeratzen». Lehen esan bezala, fraide izatea ez dauka saltzeko, baina, hala esango dizu: «Ondo zorionean naiz fraide, nahiz osoki zorionekoa ez naizen». Badu zorion-gogo eta irrika; kopla batzuetan adierazten du hori.

«Gizona bada duena galtzeko beldur den gizaki ere.» Gandiagak gorroto dio gizarte konsumista honi. Ez zaio gustatzen izateari baino edukitzeari garrantzi handiagoa ematen dion gizarte hau. Are gutxiago burokrazia eta herriaren zapalkuntza. Hauxe dio *Bitoriano Gandiagari* izenekoan: «Utopiaren erresumatik behar du hona ekarri».

Hirugarren Munduko problemek ere kezkatzen dute: Uruguay, El Salvador, Guatemala... Hortxe aipatzen ditu, nik ez dakit zergatik,

kopla errimatu eta trikiti-soinu alaian. Behartsuen munduko izar beltzak omen URSS eta USA:

Behartsuen zeruan
horra izar beltzak,
URSS eta USArenak
ez dira artzak,
ai,oi,ai
horra izar beltzak.
Inpotentzia-mugak
zein diren garratzak!

Ironia ere erruz darabil Gandiagak: «Denek maite gaituzte [...]. Madrilek maite gaitu, Parissek [...]» Euskal literatura dela eta, hor ere nolako ironia: «Genero honek ez du izenik».

Egiarik isildu ote Gandiagak?

Asko lotsatu bainau
sarritan egiak
isilpean estali
ohi ditut erdiak.


Liburu osoa da garrasi ozen. Fedearen eragina, esperantzaren bultzada eta pozaldiak ageri dira, baina beltzune eta trajikotasun handia ere nabari dira.

Dena dela, hain prosa onik eta bertso ederrik ez dut sarritan irakurri. Lanabesa ongi zorroz-tuta edukitzetik dator kio indar handia Gandiagaren lanari. Lanabesa, euskara alegia, ezin hobeto antotua dauka. Hitzik ez soberan, berbarik ez alferrik, erritmo egokia, airean bezala eramaten zaituzte haren hitzek.

Bake bila bere buruarekin ere Gabon dut anuntzio

Liburu marduletan hori da azkenekoa. Hori ere, gainera, han-hemenka barreiatu-riko Gabon kantuak (berak sortuak, noski) bildu eta osatua. Tautologia hutsa da liburuan Gabonetako giroa nabari dela esatea. Berriro ere ikuskera berri baten aurrean pasarazten ditu hain herrikoi, hain kristau, diren gertakariak. Urte luzeetan idatziak dira; batik bat lagun eta adiskideei, hain egun seinalatu-etan, zorionak emateko idatziak dira. Baina ez pentsa, Gabonetan ere, Gandiagak arazo sozialei ihes egin dienik.

Bere betiko estiloari eusten diola esango genuke. Eta estilo horretan jorrazten ditu Belengo misterioa, fedea, salbazioa...



Gabon dut anuntzio liburuaren azala

Garaia heldu da.

Gertakizuna

ospatzeko eguna,

egunak aurretik eta eguna ostetik dituela.

huts egin gabe, zuzen iritsiko da

Jaungoiko Salbatzaile Kristo Jesusen

graziazko jaiotza berriaren bakez.

Gabonak umetako kontuak ere gogorarazten dizkio:

«Zulo bat egingo dut. Aldia dut zulatuko aspaldian zehar, harik eta haurtzaroko Gabonen bazterra ikustera heldu arte.»

«Gabon problema ere bada neretzat» esango digu. Munduko pobreak ditu gogoan, eta Jesus haiekin dago, eta Bitorianok haren jarraitzaile izan nahi, nola ez badaki ere. Horregatik da Gabon problema harentzat.



Euskal Ikaskuntzako ekitaldi batean: ezkerretik, (...), Angel Iturbe, Roman Sudupe, Gregorio Monreal eta Javier Saenz de Oiza eta Bitoriano Gandiaga



Bitoriano eta bere lagun bat, mendibuelta egin ostean, atsedena hartzen

Komentuan nola ospatzen zuten adieraztea ere ez zaio ahazten. «Eguerdian eukaristia ospatzen dugu kalenda eta guzti [...]. Lehengo fraide-komunitateetan egiten genuen mezu-hosegite bat da kalenda. Belengo Jaiotzaren berri ematen digun aldarrikatze poetiko bat da. Hori mezaren buruan, pastoraletako doinuz abesten diot anaidiari –nik abestea nahi izaten dute–.»

Eta gero Arantzazuko auzoan eskean nola ibiltzen diren kontatuko digu. Eta geroago Gabonetako kontsumismoaren aurka min-

tzatuko da. Gabonak alderdi askotatik ukitzen digu, baina funtsean maitasun-giroa darie haren hitzei. Eta hiru bertsoetan Biblia osoa ez dago hobeto esplikatzetik:

Moises ere bai eta
profeta ugari
bidali zenizkion
zeure herriari;
gizalditan aritu
ziren mezulari
Mesias zetorrela
guztion gidari.



Bitoriano Gandiaga omenalda jasotzen. Ezkerretik euskuinera: Iñaki Sarriugarte, Gandiaga bera, Adolfo Arejita eta Xabier Amuriza

Noizbait horra etorri
 etortzeko zena,
 zorion-biderako
 berri onez dena;
 zintzoei poza eta
 makalei kemena,
 maitasuna dario
 eta barkamena.

Aitagandik jaitsi zen,
 Aitagana igo;
 handik itzuliko da
 mundura berriro;
 zuzen epaituko du

sosdun eta txiro,
 gabiltzan justizian
 eta anaikiro.

Horrelako piezak entzunda, jarraitzeak ez du merezi. Hemen amaitzen ditugu iruzkinak. Gauzatxo bat bakarrik, badago katalogo bat *Euskal olerki eta bertsoen bibliografia* izenekoa, Julen Urkizak idatzia, eta hor agertzen dira Gandiagak idatzitako obra guztien izenburuak. Beraz, berri sakonagorik nahi duenari hura gomendatzen diogu gida moduan.

Azken-azkenik, heriotza aurreko egunak Gandiagarekin bizi izan zituzten fraide-lagu-

nen hitz batzuk eskaini nahi dizkiogu Euskal Herri osoaren seme kuttun eta poeta handiari. Hitz horiek Telesforo Zubiarrainek helarazi zituen gureganaino, elizkizuneko sermorigisa:


Joan zaigu Bitoriano Gandiaga, gure Gandi maitea. Eta nola joan gainera! Harriturik, zer pentsa utzi gaitu. Seguru asko, azken aldi honetan burutu du bere poemarik bikainena, ez idatziz baina bai jator biziz eta heriotzari aurrez aurre aurpegia emanez.



Bitoriano Gandiaga bere iloba Maiterekin

Heriotza onartu zuen

«Ez nintzen konturatzen nere grabedadetaz. Pitinka bada ere hobera egiten nuela uste nuen. Kosta zitzaion Joan Ignaziori ni mando gainetik botazea. Nik biziari heltzen nion, hortxe itsatsita bainengoan. Bizitzeko gogo bandia nuen eta amets ugari ere banituen gerorako. Baina egun gutxirako nengoela esan zidanean, malko galantak bota-ta gero, onartu nuen. Bai, Jaungoikoanen aurrean onartu nuen. Otoitzean ulertu nuen Jaungoikoanen nahia zela eta esan nion: “Gerta bedi zuk nahi duzun bezala”. Bere eskuetan jarri nintzen eta hor irauten dut. Hamaika aldiz entzundako salmo hura, argitasun eta zorion bihurtu zait



Bitoriano Gandiaga eta Mendata liburuaren azala



Bitoriano Gandiagaren liburutegia

orain: “Jauna dut artzai, ez naiz ezereen behar-
rean”. Egiatan, ez naiz ezereen behar-
rean. Gure Jaunak ematen du dena.

Nik, buru argiarekin bizi nahi nuen une hau.
Minak blokeatu egiten nau eta burua ilundu
egiten dit. Jainkoari eskatu nion mina kentze-

ko, mesedez. Eta hori ere eman dit mediku
jator horiei esker. Hor ari zitzaizkidan ezin-
alakoak egiten.


Eta orain oso ondo nago, Jainkoari esker. Hain
simple bihurtu zait dena. Hau Jainkoak egiten
du, Bere Erruki handiz.»

Nik ensaiatu

«Baina, zuk ere, zeozer egingo zenuen?» Gal-
detu nion. «Nik, pixka bat ensaiatu. Ensayatu,
bori bai; bizitzan ensaiatzea oso inportantea
da. Ah, ensaiatu gabe harrapatu banindu egoe-
ra honek! Onduan, erruki!».

Eta Pello Zabalaren artikulutik hauxe kopiatu
dugu:

Heriotzara noa muturrez aurrera.
Nahi banu ere ezin egin atzera.
Trantzeaz gogoratzen naiz, noizik noizera,
ikusiz nola martxan nihoan gainbehera,
astun, erorbera
uraren antzera,
behera eta behera
unetik unera,
behin honez gero malo,
laster lurrera.



Bitoriano Gandiaga,
bere jaiotza- eta heriotza-datak gogoratzen dituen txartela

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Arantzazuko liburutegia*
- *Juanita Gandiaga*
- *Idoia Mallea*
- *Iñigo Agirre*
- *Mendatako Udala*
- *Bitoriano Gandiaga eta Mendata liburua*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1866-5 (Lan osoarena)
84-457-1867-3

L.G.: VI-557/02

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística